

Pedal kolpeka irakurzaletasuna sustatuz

'Biziletra' herrien arteko maratokia Bermeon eta Gernika-Lumon egin dute; hainbat lagunek parte hartu dute proiektuan.

MAITE ORUE

Liburutegiak kalera ateratzeko eta irakurzaletasuna sustatzeko herrien arteko 'Biziletra' maratokia eskualdera iritsi da. Zapatuan Bermeon izan zen maratoki horretan parte hartzeko aukera eta atzo, aldiz, Gernika-Lumon, herri bietako Udal liburutegiek bat egin baitute Eusko Jaurlaritzak antolatutako proiektu horrekin.

Bermeon zein Gernika-Lumon, hainbat izan dira 'Biziletra'-ren trizikloan igo eta herriko kaleetatik osteratxoia egin bitartean bozgora irakurri duten lagunak. Kostako herriko liburutegiko arduradunek zehaztu dutenez, zapatuan jende askok parte hartu zuten 'Biziletra'-n, batez ere gazteek. Gernika-Lumon ere datuak baikorrak izan dira, geratu ere egin barik ibili baitzen atzo goizean trizikloa. Jakinarazi dutenez, hainbat pertsonak lagundu zuten irakurzaletasuna sustatzeko proiektua arrakastatsu egiten. BUSTURIALDEKO HITZAK ere parte hartu du maratopian, harpidetzen beharizana nabarmenduz.

2.500 euroko saria irakurzaletasuna sustatzeko

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat liburutegik parte hartuko dute 'Biziletra'-n, eta sariak jasoko dituzte pedalei eragiten kilometro gehien egin dituztenek. Liburutegiek duten bazkide kopurua eta maratopian parte hartu duten pertsona kopurua ere baloratuko dituzte antolatzaileek. Puntuazio altuena lortzen duten bi liburutegiek irakurzaletasuna sustatzeko 2.500 euroko saria jasoko dute.